

BIHAR, OSTIRALA, 18:30ETAN, DONOSTIAK

GABONAK PIZTUKO DITU

Donostiako Gabonak bihar inauguratuko dira argien piztuerarekin. Ekonomiako eta Tokiko Enplegurako zinegotzigoak antolatuta, Donostia Sustapenaren bidez, 18.30ean hasiko den inaugurazioa Alderdi Eder, lehenengo, eta Kontxako pasealekuan, ondoren, izango da. Mikel Erentxun-ek, "Navidad", bere lan berriko hainbat abesti eskainiko ditu. Ondoren, Iñigo Llopis, Miren Lazkano, Fernando Michelena, Pau Echaniz eta Maialen Chourrautek, Parisko Jokoetan ibilitako kirolariak, pizte-botoia sakatuko dute. Azkenik, Kontxako pasealekutik, 300 dronerekin, International Drone Show Festival jaialdiaren lehen emanaldiaz gozatuko dugu.

Inaugurazioaren lehen zatia udaletxeko terrazan egingo da, eta Alderdi Ederreko lorategietatik jarraitu ahal izango da. Piztu ondoren, minutu batzuk emango dira donostiarrek eta bisitariak Kontxako pasealekura hurbildu eta drone-ikusketaz goza dezaten. Hernani kaletik zenbat eta hurbilago egon, orduan eta ikuspen txikiagoa izango du ikuskizunak.

Inaugurazio-ekitaldiak, honako eraginak izango ditu:

- **17:45etik aurrera itxita egongo da Boulevardeko ibilgailuen trafikoa.**
- **Portuaren inguruan, Mollaberria kalea ere moztuko da egun osoan zehar, eta ontzietara sartu nahi dutenei sartzen utziko zaie.**
- **Boulevard, Hernani kalea, Andia kalea, Cervantes plaza eta erlojuak lotzen dituen bidegorriaren zatia ere moztuko da.**

Aurten, gainera, inaugurazioa hiriko hainbat espaziotan banatuko da; halaber, itxierarako hiru leku desberdin egongo dira. 19:00etan, Ramon Labayen plazan, Pedro Miguel Aguinaga biolin-jotzailearen kontzertua hasiko da. 19:30ean Gabonetako Bola handiko lehen musika-emanaldia egingo da Kursaalaren inguruan. Eta 20.00etan hasiko da Gabonetako Merkatuko Igluaren lehen kontzertua Sara Grajal eta DJ Pikunharen eskutik.

Larunbatean, hilak 30, bi drone emanaldi izango dira International Drone Show Festival jaialdiaren barruan, 18:30ean eta 19:45ean. Mugikortasun urriko pertsonak Nautikoko ontzirelekuaren ondoko egurrezko terrazan kokatu ahal izango dira.

**** KOMUNIKABIDEENTZAKO GOMENDIOAK.** Biharko inauguraziorako akreditatutako komunikabide guztiek 18:00etan egon beharko dute udaletxeko sarreran, Ijentea kaletik, eta handik terrazaraino eramango dituzte.